

TISAGENLEUCCEL (KYMRIAH)

Tisagenlecleucel immunoterapia tratamendu batean erabiltzen den Kymriah farmakoaren printzipio aktiboa da. Medikamendu hau immunoterapia pasiboan erabiltzen da. Pazienteari T linfozitoak erazten zaizkio, eta laborategian manipulatu dira. T linfozitoei CAR molekularren genea gehitzen zaie eta honi esker anti-CD19 antigorputza sintetizatzen dute gainazalean. Antigoputz hau itu zelulak diren B linfozitoek gainazalean daramaten CD19 molekula ezagutuko dute eta zelula hauen aurka eragingo dute, ezagutuz eta suntsituz.

Immunoterapia tratamendu honetan indibiduoaren serumeko T zelulak erabiltzen dira eta medikamendu hau lortzeko pausuak ondorengoak dira:

1. Odola ateratzea
2. T zelulen isolatzea
3. Manipulazio genetikoa, bektore biral baten bidez
4. Produktuaren perfusioa gaixoan



Medikamendu hau minbizi mota hauek tratatzeko soilik erabiltzen da:

- Leuzemia linfoblastiko akutua (LLA) daukaten gaixoetan: Kasu honetan indibiduoek B zelula gehiegi daukate hezur muinean eta odolean. Haurretan eta 25 urte arteko helduetan, transplante baten ondorengo bergaixotzean.
- B zelula handien linfoma daukaten indibiduoetan: kasu honetan globulu zuri desberdinak kaltetzen dira, batez ere gongoil linfatikoetan. Helduetan, tratamendu sistematikoarekin bi saiakuntza edo gehiago egin ostean, eta emaitzak eraginkorrak ez direnean, azken aukera bezala, tratamendu hau egitea gomendatzen da.

Beraz, garrantzitsua da kontuan hartzea pazientei medikamendu hau kimioterapia tratamendu bat egin ostean ematen zaiela; edo bestela, tratamendua hasi baino astebete lehenago odolean 1000 zelula/ μ l baino gutxiago daukaten gaixoei erabiltzen da. Laburbilduz, gaixoa immunodeprimetuta egon behar da.

Nahiko tratamendu berria da. Hori dela eta, populazioko talde batzuetan oraindik ez da behar bezala frogatu bere efikazia, GIB-a duten gaixoak, hepatitis C daukatenak edo 65 urtetik gorakoak dira besteak beste.

Kymriah pertsona bakarrak erabil dezake, bakoitzaren T linfozitoekin eginda dagoelako, eta erabilera bakarreko sendagaia da. Horrez gain, inoiz ezin da erabili farmakoaren konposaturaren bati alergia izanez gero.

Zain bidetik administratzen da, eta dosia honakoa da:

- LLA daukaten gaixoetan pisuaren arabera izaten da:
 - <50 kg : 0,2-5 x10⁶ zelula CAR+/kg
 - >50 kg: 0,1-2,5 x10⁸ zelula CAR+/kg

- LDCGB duten gaixoetan: 0,6-6 x10⁸ zelula CAR+ (pixuarekiko independentea)

Jarraian zerrendatzen dira albo ondorio ohikoenak, 10 pertsonatik 1 baino gehiagotan azaltzen direnak:

- Zitokinen askapenaren sindromea, perfusioaren ondorengo lehen 10 egunetan azaltzen dira sintomak
 - Sukar altua eta hotzikarak
 - Arnasteko zailtasunak
 - Okadak eta beherakoa
 - Muskuluetako mina
 - Presio arterial baxua
- Erreakzio neurologikoak
 - Kontzientziaren galera edo nahasmena
 - Delirioak
 - Konbultsioak
 - Hitz egiteko eta ulermenerako zailtasunak
 - Oreka galtzea
- Infekzioa
 - Beroa, sukarra, hotzikarak
 - Eztarriko mina
 - Zauriak ahoan

BIBLIOGRAFIA:

Kymriah 1.2 x 10⁶ - 6.0 x 10⁸ células dispersion para perfusion. Búsqueda de medicamentos. Agencia española de medicamentos y productos sanitarios. Gobierno de España. Ministerio de sanidad, consumo y bienestar social. [Internet] [2019ko apirilaren 10ean kontsultatua]. Eskuragarri hemen: <https://cima.aemps.es/cima/publico/detalle.html?nregistro=1181297001>

Informazio guzti hau kontuan hartuta, nik _____ -ek tratamendu honek izan ditzakeen albo ondorio guztiak aintzat hartuz tratamendua jasotzea onartzen dut.

Sinadura:

A2.TALDEA:
Maialen Elizalde
Sara Sudupe
Amaia Gorrotxategi
Irati Guenaga
Ilargi Zipitria